

pentsatzailearen bidez egingo da. Entitate horiek arduratuko dira bonoen titularrei ordainketak helarazteko.

4.- Mugaegunean, korrituak ordaintzeko oinarri bezala hartzen diren bonoen saldoen zerrenda bidaliko dio Ogasun eta Herri Administrazio Sailari Konturako Ohartarazpenen Zerbitzuak, entitate partehartzaileei dagokien zerrenda alegia.

10. atala.- Amortizazioak ordaintzeko jardunbidea.

Amortizazioak ordaintzeko jardunbidea, bederatzigarren atalean ezarritako berbera izango da, baina korrituak hitza azaltzen den lekuan amortizazioak ulertu behar da.

#### AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.* - Baimena.

Dekretu hau garatu eta betetzeko baimena ematen zaio Ogasun eta Herri Administrazio sailburuari.

*Bigarrena.* - Indarra hartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko azaroak 21.

Lehendakaria,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

#### INDUSTRI, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

##### 4970

471/1995 DEKRETUA, azaroaren 7koa, Industri, Nekazaritza eta Arrantza Saileko ihardun eremueta-ko zehapen prozeduren arloko eskumenak noren esku dauden finkatzen duena.

Herri Administrazioen Lege Jaurbideari eta Guztientzako Administrazioen Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen IX. idazpuruan ezartzen da zein printzipiotan oinarritu behar duen administrazioak zehatzeko ahalmena gauzatzerakoan eta zeintzuk diren printzipio horien ondorioz hiritarrek dituzten eskubideak. Printzipio horien artean, prozedurazko berme gisa, instrukzio fasearen eta zehapen fasearen artean tarte egokia gorde beharra eta fase bakoitza organo desberdinen esku utzi beharra jasotzen da.

Beraz, industri, nekazaritza eta arrantzaren arloetako sektorekako legedi aplikagarria oinarri duten prozedura

Dichas entidades harán llegar los pagos correspondientes a los titulares de los bonos.

4.- El día del vencimiento, el Servicio de Anotaciones en Cuenta enviará al Departamento de Hacienda y Administración Pública la relación de saldos de bonos de las entidades participantes que sirven de base para el pago de intereses.

*Artículo 10.* - Procedimiento para el pago de amortizaciones.

El procedimiento para el pago de amortizaciones será el mismo que el establecido en el artículo noveno, con la salvedad de que deben entenderse amortizaciones donde dice intereses.

#### DISPOSICIONES FINALES

*Primera.* - Autorización.

Se autoriza al Consejero de Hacienda y Administración Pública para el desarrollo y ejecución de este Decreto.

*Segunda.* - Entrada en vigor.

Este Decreto entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 21 de noviembre de 1995.

El Lehendakari,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda y Administración Pública,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

#### DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, AGRICULTURA Y PESCA

##### 4970

DECRETO 471/1995, de 7 de noviembre, por el que se atribuyen competencias en materia de procedimientos sancionadores en las áreas de actuación del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca.

La Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en su Título IX, estableció los principios básicos a los que debía someterse el ejercicio de la potestad sancionadora de la Administración y los correspondientes derechos que de tales principios se derivaban para los ciudadanos. Entre los citados principios se recogía una garantía del procedimiento, que exigía la necesidad de establecer una debida separación entre la fase instructora y la sancionadora, debiendo ser encomendadas a órganos distintos.

Lo establecido en la Ley 30/1992, por lo tanto, ha de tenerse en cuenta en todos los procedimientos sanciona-

zehatzaileetan kontutan hartuko da 30/1992 Legean ezarritakoa, zehapen gaietako funtzioak hierarkikoki banatzeko jasotzen dituen xedapenak barne.

Organo zehatzaileak zeintzuk diren zehazterakoan, urtarilaren 31ko 81/1995 Dekretuaren 4. atalari ere erreparatuko zaio, bertan aurrakusten baita zehatzeko ahalmena Industri, Nekazaritza eta Arrantza Saileko zenbait organoren esku jartzea. Aipatzekoa da, halaber, administrazioko organo desberdinek zehapen espedienteetan dituzten funtzioak hobeto arautu beharra ere jasotzen dela testu horretan. Dena den, espediente zehatzaileetan bakoitzak duen funtzioa zehazterakoan, Jaurlaritzaren Kontsiluarenak ere zehaztu behar dira; beraz, egokiago ikusten da aurrakuspen hori erabili barik, urtarilaren 31ko 81/1995 Dekretuak gai honetaz xedatzen duena aldatuko duen arautegi zabalago bat planteatzea eta, aldi berean, Industri, Nekazaritza eta Industri Saileko organoei dagokien zehatzeko ahalmena gauzatzeko beren beregizko arautegi bat onartzea, guzti hori Herri Administrazioen Lege Jaurbideari eta Guztientzako Administrazioen Lege Jaurbideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 127.2 atalarekin bat etorritz.

Azkenik, bidezkoa da berariaz aipatzea Euskal Autonomi Elkarteak baduela eskumena bere zuzentza substantiboa ezartzeko behar diren prozedurak arautzeko eta bere autoantolaketa onorio diren espezialitateak ezartzeko. Beraz, Dekretu honetan jasotzen den ordenamendua marko horretan kokatu behar da.

Ondorioz, Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailbuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1995eko azaroaren 7an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

#### XEDATU DUT:

##### 1. atala.- Xedea.

Industri, nekazaritza eta arrantzaren arloko sektorekako legedi aplikagarrian aurrakusten diren arau-hausteen kariak sortzen diren prozedura zehatzaileak hasiarazteko, instruitzeko eta erabakitzeko eskumena zein organok duten zehaztea da Dekretu honen xedea; beti ere, prozedura zehatzaileak arautzeko Euskal Autonomi Elkarteko legeriak berariaz besterik xedatzen ez badu.

##### 2. atala.- Prozedura zehatzaileen hasiera.

1.- Lege-hauspena zein arlotakoa den, Industri, Nekazaritza eta Arrantza Saileko arlo horretako zuzendariak hasiko du prozedura zehatzailea, Sailaren egitura organikoa eta egitekoak finkatzen dituen dekretuan ezarritako ihardun eremuekin eta funtzioekin bat eto-

dores que encuentran fundamento en la normativa sectorial que en materia de Industria, Agricultura y Pesca resulta de aplicación, con inclusión de las previsiones establecidas para la distribución jerárquica de las funciones en materia sancionadora.

En la determinación de los órganos sancionadores no puede dejar de repararse en el contenido del artículo 4 del Decreto 81/1995, de 31 de enero, por el que se preveía la atribución del ejercicio de la potestad sancionadora a diversos órganos del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca. A este respecto conviene resaltar cómo, en el citado texto, ya se ponía de manifiesto la necesidad de dotarse de una más acabada regulación de las funciones de los distintos órganos administrativos en los expedientes sancionadores. Ello no obstante, habida cuenta que la atribución de funciones en expedientes sancionadores debe incluir las que corresponden al Consejo de Gobierno, resulta procedente no hacer uso de la citada previsión, planteando una regulación más amplia que modifique en esta materia lo estipulado del Decreto 81/1995, de 31 de enero, al tiempo que se establece una reglamentación expresa del ejercicio de la potestad sancionadora que corresponde a los órganos del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca, de conformidad todo ello con lo establecido en el artículo 127.2 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Finalmente, resulta procedente hacer expresa referencia a la competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco para la regulación de los procedimientos necesarios para la aplicación de su propio derecho sustantivo y para establecer las especialidades derivadas de su propia autoorganización, en cuyo marco debe situarse la ordenación contenida en el presente Decreto.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 7 de noviembre de 1995

#### DISPONGO:

##### Artículo 1.- Objeto.

Constituye el objeto del presente Decreto la determinación de los órganos competentes para la iniciación, instrucción y resolución de los procedimientos sancionadores que encuentren causa en las infracciones previstas en la legislación sectorial de aplicación en el ámbito de actuación del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca, siempre que en las correspondientes normas reguladoras de procedimientos sancionadores de la Comunidad Autónoma del País Vasco no se haya realizado expresamente otra determinación.

Artículo 2.- Iniciación de los procedimientos sancionadores.

1.- La iniciación de los procedimientos sancionadores, corresponderá a los Directores del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca en razón de la materia en la que deba ubicarse la actividad infractora, de conformidad con las áreas de actuación y funciones estableci-

rriz.

Hori horrela izanik ere, lege hauspena arintzat jo badaiteke eta legedi aplikagarrian horrela tipifikatuta badago, industriaren, energiaren, meatzeen eta industri ihardueren sustapenaren arloetako prozedura zehatzaileak Industri, Nekazaritza eta Arrantza Saileko herrialdean herrialdeko lurralde ordezkariak hasiko dituzte.

2.- Espediente zehatzailearen hasieran, egoki ikusten diren behin-behineko neurriak hartu ahal izango dira, bai prozeduraren azken erabakiaren eraginkortasuna bermatzeko bai pertsonen, floran, faunan, ondareei edota ingurugiroari kalte larri edo hurre-hurrekorik egin diezaiaketen egoerak ekiditeko.

### 3. atala.- Instrukzioa.

Prozedurari hasiera emateko eskumena duen organoak izendatutako agintariak edo, hala badagokio, administrazio unitate desberdinetako funtzionarien artean organo horrek berak izendatutakoak instruituko du espediente zehatzailea. Dena den instruktorea ezin izango da espedientea erabakitzeke eskumena izango duen pertsona berbera. Beharrezko ikusiz gero, instruktorearekin batera idazkari bat ere izendatu ahal da.

### 4. atala.- Prozedura zehatzaileei buruzko erabakia.

1.- Erabaki proposamenean zehapentzat agertzen den isuna zenbatekoa den, horren arabera ebartziko da zein organok duen prozedura zehatzailea erabakitzeke eskumena, sailkapen honen arabera:

a) 3.000.000 PTA arteko isunak Industri, Nekazaritza eta Arrantza Saileko zuzendariak erabakiko dituzte, Saileko egitura organikoa eta egitekoak finkatzen dituen Dekretuan bakoitzaren esku uzten diren gaien arabera. Dena den, arau-haustea arintzat jotzen bada eta legedi aplikagarrian horrela tipifikatuta badago, industriaren, energiaren, meatzeen eta industri ihardueren sustapenaren arloetako prozedura zehatzaileak Industri, Nekazaritza eta Arrantza Saileko herrialdean herrialdeko lurralde ordezkariak hasiko dituzte.

b) 3.000.001 eta 15.000.000 PTA arteko isunak Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuak erabakiko ditu.

c) 15.000.000 PTatik gorako isunak Jaurlaritzaren Kontseiluak erabakiko ditu.

2.- Prozedura zehatzaile batean erantzule bat baino gehiago badago, isun altuena hartuko da kontutan eta goiko idaztiaren arabera zein organori dagokion, horrek hartuko du erabakia.

3.- Atal honetan zehazten diren isun zenbatekoen

das en el Decreto regulador de su estructura orgánica y funcional.

Sin perjuicio de lo anterior, en aquellos supuestos en que existan elementos de juicio suficientes para calificar la infracción como leve, y siempre que así aparezca tipificada en la normativa de aplicación, el inicio de los procedimientos sancionadores que se realicen en el ámbito de la Industria, Energía, Minas y la Promoción de la actividad industrial corresponderá a los Delegados Territoriales del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca de cada uno de los Territorios Históricos.

2.- El inicio del expediente sancionador podrá contener asimismo las medidas de carácter provisional que se estimen oportunas, tanto para asegurar la eficacia de la resolución final del procedimiento como para evitar situaciones que impliquen un riesgo grave e inminente de daños a las personas, flora, fauna, bienes o el medio ambiente, siempre que así se establezca en la normativa reguladora de los procedimientos sancionadores.

### Artículo 3.- Instrucción.

La función instructora se ejercerá por la autoridad que designe el órgano competente para la incoación del procedimiento o, en su caso, por el funcionario que asimismo designe de entre quienes formen parte de las distintas unidades administrativas. Esta designación no podrá recaer en quien tuviera competencia para resolver el procedimiento sancionador. Junto con el instructor podrá procederse a asignar un secretario si así se considera.

### Artículo 4.- Resolución de los procedimientos sancionadores.

1.- Los órganos competentes para la resolución de los procedimientos sancionadores se determinarán de conformidad con la cuantía de la multa que figure como sanción en la propuesta de resolución, en base a la siguiente clasificación:

a) Los Directores del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca, por razón de la materia en la que sean competentes, en función de lo establecido en el correspondiente Decreto de estructura orgánica y funcional: Multas de hasta 3.000.000 PTA. Sin perjuicio de lo anterior, en aquellos supuestos en que la actividad infractora se califique como infracción leve, y siempre que así aparezca tipificada en la normativa de aplicación, la resolución de estos procedimientos sancionadores relativos a la Industria, Energía, Minas y la Promoción de la actividad industrial corresponderá a los Delegados Territoriales del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca de cada uno de los Territorios Históricos.

b) El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca: Multas desde 3.000.001 PTA hasta 15.000.000 PTA.

c) El Consejo de Gobierno: Multas superiores a 15.000.000 PTA.

2.- En los procedimientos sancionadores en que puedan existir más de un responsable, el órgano competente para dictar la resolución será el determinado en el apartado anterior en relación a la multa más elevada.

3.- El órgano competente para resolver los procedi-

arabera zehapena erabaki duen organoak berak erabakiko ditu egindako arau haustea arautzen duen legedian ezartzen diren osagarriko zehapenak.

4.- Ofizioz edo instruktoreak proposatuta prozedura largestea edo erantzukizunik ez eskatzea planteatzen bada, Dekretu honetako bigarren atalean zehazten diren organoek hartuko dute horri buruzko erabakia.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Zehatzeko prozedura hasteko eskumena duen organoak prozedura hasiaraziko duen egintza aztertzeo, erantzukizuna izan dezakeen pertsona edo pertsonak identifikatzeko eta funtsezko gora-beherak zehatzeko egin beharreko egintzak burutu ahalko ditu prozedura hasi baino lehen. Aurretiazko egintza horien barruan, zehatzeko prozedurak arautzen dituen legeriak horrela xedatzen duenean eta pertsonen, florari, faunari, ondareei edota ingurugiroari kalte egin diezaieketen egoerak aurrikusten direnean, iharduerak behin-behinekoz geldiarazteko eta produktuak atxikitzeo edo erretiratzeko erabakia har daiteke.

Hala ere, industriaren, energiaren, meatzeen eta industri ihardueren sustapenaren arloetan egiten diren aurretiazko egintzak Industri, Nekazaritza eta Arrantza Saileko herrialdean herrialdeko lurralde ordezkariak hasiko dituzte.

#### ALDIBATERAKO XEDAPENA

Dekretu honek indarra hartu aurretik hasitako zehapen prozedurak instruitzeko eta erabakitzeo eskumena hasiera eman zitzaienean indarrean zegoen legerian ezartzen diren organoek izango dute.

#### INDARGABETZEKO XEDAPENA

Indarrak gabe uzten dira bai Industri, Nekazaritza eta Arrantza Saileko egitura organikoa eta egitekoak finkatzen dituen urtarrilaren 31ko 81/1995 Dekretuaren 4. atalaren hirugarren idazatia bai Dekretu horretako aldibaterako lehenengo xedapena.

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteizen, 1995eko azaroak 7.

Lehendakaria,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburua,  
JAVIER RETEGUI AYASTUY.

mientos sancionadores en función de las cuantías de las multas establecidas en el presente artículo, lo será asimismo para acordar las sanciones complementarias que se establecen en la normativa reguladora de la infracción cometida.

4.- En los supuestos que, de oficio o a propuesta del instructor, se plantee el sobreseimiento del procedimiento o declarar la no exigibilidad de responsabilidad serán competentes los órganos establecidos en el artículo segundo del presente Decreto.

#### DISPOSICIÓN ADICIONAL

Las actuaciones previas que se realicen con anterioridad a la iniciación de un procedimiento sancionador, tendrán como objeto determinar, con la mayor eficacia posible, los hechos susceptibles de motivar la incoación del procedimiento, la identificación de las persona o personas que pudieran resultar responsables y las circunstancias relevantes, y será efectuadas por el órgano competente para el inicio del procedimiento sancionador. La realización de las actuaciones previas podrá conllevar el acuerdo de paralización temporal de actividades o la retención o retirada de los productos, en los supuestos que se aprecie un riesgo grave e inminente de daños a las personas, flora, fauna, bienes o al medio ambiente, siempre que así lo establezcan las normas reguladoras de los procedimientos sancionadores.

Sin perjuicio de lo establecido en el párrafo anterior las actuaciones previas que se realicen en el ámbito de la Industria, Energía, Minas y la Promoción de la actividad industrial corresponderá a los Delegados Territoriales del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca.

#### DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Los órganos competentes para la instrucción y resolución de los procedimientos sancionadores ya iniciados con anterioridad a la entrada en vigor del presente Decreto, serán los establecidos en la normativa vigente en el momento de su incoación.

#### DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Se deroga expresamente el párrafo tercero del artículo 4 del Decreto 81/1995, de 31 de enero, por el que establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca, así como la Disposición Transitoria primera del mismo Decreto.

#### DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 7 de noviembre de 1995.

El Lehendakari,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO

El Consejero de Industria, Agricultura y Pesca,  
JAVIER RETEGUI AYASTUY.